

## 5. FINALAURREKOA – GERNIKA

Aurkezlea: Bernar Mandaluniz

### GAIAK

#### 10eko handia

Igor Elortza eta Sustrai Colina

Bikotea zarete. Gizarte-zentro batean zegoen gazte bat hartu zuten etxean orain dela hilabete. Gaur, zentrotik dei bat jaso duzue, zuen etxea utzi eta zentrorra itzuli dela esanez.

Igor hasita, hiruna bertso hamarreko handian.

Jon Martin eta Jone Uria

47 egun bahituta izan ondoren, zuen aitak itzuli dira etxera. Ongi etorria egiten ari zaizkie herrian. Beraiei begira zaudete.

Jon hasita, hiruna bertso hamarreko handian.

Miren Amuriza eta Beñat Gaztelumendi

Oinarrizko kanpamenduan zaudeten goi-mailako mendizaleak zarete. Zuen espediziokideak azken kanpamenduan daude, eta jaisteko agindua eman diezue eguraldi txarra zetorrela eta. Prismatikoekin, gorantz nola doazen ikusten ari zarete.

Miren hasita, hiruna bertso hamarreko handian.

#### 8ko txikia

Igor Elortza eta Jon Martin

Zu, Igor, puenting-eko edo zubi-saltoko monitorea zara. Jon agurea etorri zaizu gaur, berak ere salto egin nahi duela esanez.

Igor hasita, hiruna bertso zortziko txikian

Sustrai Colina eta Miren Amuriza

Sustrai, azokan elikagai biologikoak saltzen dituen nekazaria zara. Miren bezeroa heldu zaizu gaur, poltsa bete sagar itzultzera, harrak dituztela eta.

Sustrai hasita, hiruna bertso zortziko txikian

Jone Uria eta Beñat Gaztelumendi

Bizilagunak zarete Jone eta Beñat. Beñaten pisu azpian bizi zara, Jone.

Lau gau dira Beñatek goizeko 3etan aspiragailua pizten duela.

Jone hasita, hiruna bertso zortziko txikian

## **10eko txikian**

Jon Martin eta Miren Amuriza

Adiskidetasun koloretsua duzue Jonek eta Mirenek; alegia, lagun onak zarete, eta batzuetan hori baino gehixeago ere bai. Zuk Jon, zure etxeko giltzak eman dizkiozu Mireni, baina Mirenek ez dizkizu hartu. Jon hasita, hiruna bertso hamarreko txikian.

Jone Uria eta Igor Elortza

Zuk, Jone, eraikitzen ari ziren etxe bat erosi zenuen. Igor eraikuntza- enpresako langilea zen. Enpresak porrot egin du. Biak zaudete bukatu gabe dagoen etxeari begira. Jone hasita, hiruna bertso hamarreko txikian.

Beñat Gaztelumendi eta Sustrai Colina

Zuek biok, Beñat eta Sustrai, lehen lerroko politikagintzan jardunak zarete urteetan. Orain urte bi erretiratu zineten. Beñat astero hitzaldiak ematen dabil. Sustrai bizitza publikotik aldendua bizi da. Beñat hasita, hiruna bertso hamarreko txikian.

## **Lauko handian**

Miren Amuriza eta Igor Elortza

Ajuria Eneko bi sukaldari zarete. Azkenaldian, aldaketa nabarmenak sumatu dituzue. Miren hasita, seina koplak, lauko handian.

Beñat Gaztelumendi eta Jon Martin

Aerobikeko lehen eguna duzue gaur. Erritmoa hartu ezinik zabilzate. Beñat hasita, seina koplak, lauko handian.

Sustrai Colina eta Jone Uria

Apustuzaleak zarete biok. Duela astebete, elkarrekin egin zenuten apustua, urtebetez apusturik egin gabe nork agoantatuko ote duen. Frontoian zaudete biok, ezinegonik. Sustrai hasita, seina koplak, lauko handian.

## **Kartzela**

300 euroekin irten zara etxetik, eta ezer gabe itzuli zara berriz. Hiru bertso nahi duzun doinu eta neurrian.